



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Diana Navarrok omenaldia egingo dio Concha Piquerri Arriaga Antzokian, XX. mendeko koplak XXI. mendera ekarriz

- Málagaako abeslari, konpositore, aktore eta aurkezleak *De la Piquer a la Navarro* ikuskizuna eskainiko du igandean Bilbon (19:00etan), Concha Piquer eta bere abestiak gogora ekarriz.

Bilbo, 2025eko otsailaren 14a.- Mende bat geroago, koplak indarrean jarraitzen du hura gogoratzen duten artista eta poeta askoren ahoetan, gure adinekoen oroimenean eta, haiei esker, baita gazteen artean ere. Tradizio musikalen defendatzaile leiala da Diana Navarro, eta, igande honetan, otsailaren 16an, Arriaga Antzokian soinu-bidaia bat egitera gonbidatzen gaitu. Zuzeneko pianoaren xalotasunetik abiatuta fusiorik harrigarrienera iristeko, Diana Navarrok Concha Piquer handia gogora ekarriko du eta, beste behin, kopla denboragabea dela jarriko du agerian.

Arriaga Antzokian 2022an ikusi ahal izan genuen *En tierra extraña* antzezlanean Concha Piquer andrearena eginez aktore gisa arrakasta handia izan ondoren, Dianak artista handi hari eta koplaren generoari omenaldia egin nahi izan die, haren kanturik enblematikoenak eta baita ezezagunenak ere ekarriz. Horrela, belaunaldi gazteenek erreferentzia gisa izan dezakete emakume hura, zeina, 14 urte besterik ez zituela, Broadwayn jardun zuen lehen aktore espainiarra izan baitzen, baita zinema soinuduneko irudietan agertu zen lehen emakumezko aktorea ere, bere ibilbidean zehar izandako lorpenetako batzuk aipatzearren.

"Ojos verdes", "Me embrujaste", "No me llames Dolores"... dira Diana Navarrok XX. mendeko koplak XXI. mendera hurbilduko dituen ikuskizun berezi honetan interpretatuko dituen lanetako batzuk.

Artista polifazetikoa

Etengabeko bilakaeran dabilen artista da Diana Navarro; Espainiako musika tradizionalan espezializatu da, Kopla, Saeta, Flamenkoa eta Zarzuela Pop Sinfonikoa edo Elektronika bezalako estilo hain desberdinekin fusionatuz. Ia bi hamarkadako ibilbideak bere kalitate artistikoa eta talentua bermatzen ditu. Jaso dituen aintzatespenen artean, Saetaren 2 sari nazional, Ondas sari bat eta Urrezko Mikrofono bat dira azpimarratzekoak. Horrez gain, bi bider izan da Grammy Latinoetarako hautagai, eta behin MAX Antzerki Sarietarako.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 29 eta 45 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefono zenbakian edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus